

#### 4.DIRU-ITURRIAK

Hiru merkatu-arlo ezberdinetan eskaintzen ditugu; segurtasunean, teknologia berrietan eta bitxigintzan (diseinu ezberdinekin). Eratzuna urte bateko garantia edukiko luke, eta edozein arazo edukiz gero, mantenimendua dohainik eskainiko genuke. Gainera, hura jasotzerakoan, kargagailu batekin etorriko zen, eratzuna beti batera beteta edukitzeko.

SecuRing erosiz gero, 50 euroko inguruko prezioa izango luke, garantia eta kargagailua barne, baina ere bai posiblea izango litzateke eratzuna bakarrik erostea (noizbait galdu ba duzu) 45 eurotan edo bakarrik kargagailua erostea, 5 eurotan, baldin eta eratzunarekin batera erositakoa apurtu egin ba da. Dena dela eta, uste dugu beharrezkoa ez dela izango, norbait gure produktua erosi egiten badu, beldurra daukalako da, eta horregatik dakigu oso ondo zainduko luketela norberaren eratzuna.

Gure produktua ezagutzera emateko, pixkanaka joango ginateke. Hasieran irratan eta egunkarietan gure produktua iragarriko genuke eta hortik aurrera eta haren garrantzia jakinda, ahoz aho zabalduko zen zihur. Beharrezko dirua lortu ondoren, telebistan eta autobuseko geltokietan eratzunaren publizitatea jarriko genuke. Horrela, gero eta jende gehiago SecuRing ezagutuko luke, eta gero eta jende gehiago edukiko luke bat, seguru sentitzeko asmoz.

Diru-sarrerei dagokionez, hasieran diru guztia gure poltsikotik aterako genuke. Lau bazkide gara eta bakoitzak 2.000 euro jarriko genituzke gure enpresa martxan jartzeko. Uste dugu 8.000 eurokin nahikoa izango dela gure enpresa aurrera ateratzeko. Behin gure enpresa martxan jarrita, alde batetik, emakunde erakundearen diru-laguntzak jasoko genituzke, azkenean gure enpresaren helburuak erakunde horretakoekin bat daudelako. Beste alde batetik, poliziaren eta Gasteizko Udalaren diru-laguntzak izango genituzke ere. Gure eratzunak kaleetan segurtasuna finkatzen duenez, poliziari laguntza eskaintzen diogu, eta hori saritzeko modu bat, diru-laguntzak ematen da.

Emakunde-ren, poliziaren, Gasteizko udalaren eta akzionisten artean, 24.000 euro urtero lortuko genituzke, hau da, 2.000 hileroko. 8.000 euroekin hasiko ginateke gure enpresa martxan jartzeko.

Estimatzen dugu urtero 6.000 euro irabaziko genituzkela eratzunen salmentekin. Hilero 500 unitate salduz.



